

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y
EMPLEOCULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO
AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN
LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak 367.898 euro eman ditu Gurutze Gorriaren programentzako

Sánchez de Muniáin kontseilariak Kultur arteko bitartekotza eskolaren egoitza bisitatu du Iruñan

Martes, 05 de junio de 2012

Juan Luis Sánchez de Muniáin Kultura, Turismo eta Erakundeekiko

Harremaneratako kontseilariak Gurutze Gorriak Iruñako Leyre kalean duen egoitza bisitatu du gaur goizean. Bertan, Gurutze Gorriaren Kultur arteko bitartekotza eskola eta etorkinentzako harrera etxeak ezagutu ditu. Kontseilariarekin batera izan da Charo Martínez, Gobernuak Etorkinen

Arretarako duen Bulegoaren koordinatzailea. Nafarroako Gobernuak 367.898 euro jarri ditu GKE-aren programentzako.

Zerbitzuon erabiltzaileekin eta Gurutze Gorriaren boluntarioekin hitz egin du kontseilariak. Gogora ekarri behar da Gurutze Gorriak Iruñan eta Nafarroan zehar dituen tokiko batzarretan 14 teknikarik lan egiten dutela, boluntarioen laguntzarekin.

Joaquín Mencos Nafarroan Gurutze Gorriko lehendakariak ezagutzera eman du GKE "Buelta eman nahi diogu" kanpainara atxiki dela. Egitasmoa Foru Gobernuak eta Nafarroako enpresari talde batek sustatu dute indarrak batu eta, honela, krisi ekonomikoa gainditzeko asmoarekin.

Nafarroako kultur arteko bitartekotza eskola

Gurutze Gorriaren iritiz, beharrezkoa da arraza eta kultura desberdinetako pertsonen arteko bizikidetzaren ezberdintasunak konpontzea gizarte gatazkaren sorburu bihurtu ez daitezen. Eta bitartekotza, hain zuzen, aldean arteko ezberdintasunak konpontzera dator. Izan ere, hirugarren pertsona batek bi aldeek amankomunean dituzten ezaugarri eta aukerak ezagutzera eman ditzake eta, honela, bien arteko akordio eta soluzioak erraztu.

Hori dela eta, gatazkak konpondu behar dituzten bitartekoen prestakuntza beharrezkoa dela dio Gurutze Gorriak. Horregatik sortu zen Nafarroako kultur arteko bitartekotza eskola, bitartekoak elkarbitzitzan eta tokiko garapenean trebatzeko helburu nagusiarekin. Eskolak 52.345 euroko diru-laguntza jaso du Nafarroako Gobernuaren aldetik. Bertan 2



Sánchez de Muniáin kontseilaria Gurutze Gorriko zuzendari, teknikari eta boluntarioekin.

kontratatu eta 3 boluntariok lan egiten dute, 9 jarduera burutzen dira eta, guztira, 150 partaide izan ditu.

Harrera humanitariorako programa

Sánchez de Muniáin kontseilariak harrera humanitariorako programa ezagutu du. Berau, etorkin gazteei zuzendua, Iruñako bi etxetan eskaintzan da. Nafarroako Gobernuak hitzarmen bat du Gurutze Gorriarekin etxe hauen kudeaketarako eta hortarako 128.500 euro jarri ditu. Etorkin gazteei aldi baterako harrera ematen die. 11 plaza ditu, horietako 4 Barne Ministerioak igortzen dituen pertsonentzako gordeta, Espainiako eta Nafarroako Gobernuek izenpetutako hitzarmenen baitan.

Zerbitzua 18 eta 30 urte arteko gazteei zuzendua dago, nahiz eta salbuespenak dauden eta, ohiz kanpo, 30 urtetik gorakoak ere har ditzakeen euren egoera humanitarioaren arabera. 16 boluntariok parte hartzen dute programa honetan. Joan den urtean 45 etorkin hartu zituen.

Gizarteratze eta laneratze programa

Zaugarritasun egoeran dauden etorkinei zuzendua dago, Azagran, Buñuelen, Cascante eta Cintruénigo. Nafarroako Gobernuak 39.250 euroko diru-kopurua duen hitzarmena izenpetu du Gurutze Gorriarekin.

Banakako ibilbideak eskaintzen ditu pertsonaren behar, ezaugarri eta gaitasunei egokitua. 2011. urtean 617 pertsonak parte hartu zuten. 14 boluntariok lan egiten dute bertan.

Hizkuntza eta kultur arteko bitartekotza Erriberan

Nafarroako Gobernuak ekaina arteko hitzarmen bat izenpetu du Gurutze Gorriarekin zerbitzu hau eskaintzeko. Hitzarmenak ditu, era berean, ANAFE Cite eta CCOO-ekin zerbitzu bera Iruñan eskaintzeko.

2011. urtean 106.164 euro bideratu ziren programa honetara. 10 boluntariok parte hartzen dute. Iaz Tuteran aldean 435 pertsonari eskaini zien laguntza.

Diru-laguntzak

2011. urtean Gurutze Gorriak diru-laguntzak jaso zituen honako programentzako:

- Erribera aldeko etorkinentzat Harrera Osoko Zerbitzua: 34.639 euro eman ziren 3.415 pertsona laguntzeko. 16 boluntariok parte hartzen dute programa honetan.

- Kultur arteko Bitartekotza Eskola: 52.345 euroko diru-laguntza jaso zuen. 3 boluntario, 9 jarduera eta 150 partaide ditu.

- Etorkinen Itzulera Humanitaria: Nafarroko Gobernuak 7.000 euroko diru-laguntza eman zuen. 3 boluntariok lan egiten dute bertan. Laguntza hauei esker 9 pertsona itzuli ziren.